

2023ko martxoan, Euskal AEko esportazioen kopuruak % 26,5 egin dute gora

Eustatek “Elkano” aurkezten du, kanpo-merkataritzako datuak kontsultatzeko tresna ahalik eta desagregazio handienarekin (sartu)

Euskal AEko ondasunen esportazioek (3.312 milioi euro), 2023ko martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean, % 26,5eko igoera izan dute, nahiz eta produktu energetikoei –% 47,7 behera egin, ez-energetikoei % 35,5 egin baitute gora, Eustaten datuen arabera. Hil honetan lortu da serie historikoko esportazio-bolumenik handiena; 2022ko maiatzekoa (3.267,6 milioi) ere gainditu da.

Inportazio-fluxuak (2.571 milioi) % 14,9 egin du gora, inportazio energetikoen eta ez-energetikoen igoerekin (% 27,6 eta % 11,1, hurrenez hurren), bai balioan (euroak) bai pisuan (tonak); azken horien kasuan, portzentajeak % 48,0 eta % 5,5 izan dira, hurrenez hurren.

2023ko martxoan, merkataritza-saldo positiboa izan da (741,1 milioi) eta estaldura-tasa % 128,8koa, guztia ere balio nominaletan neurtuta.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Martxoa 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Martxoa			Martxoa		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.619.266	3.312.340	26,5	2.238.306	2.571.241	14,9
ENERGIAZKO GAIK	285.568	149.346	-47,7	507.479	647.674	27,6
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	2.333.698	3.162.993	35,5	1.730.827	1.923.567	11,1
URTEKO METATUA	7.391.350	8.956.292	21,2	6.412.748	7.127.682	11,1
ENERGIAZKO GAIK	580.923	504.110	-13,2	1.432.887	1.699.600	18,6
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	6.810.426	8.452.182	24,1	4.979.861	5.428.082	9,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	699.087	980.701	40,3	478.434	592.886	23,9
URTEKO METATUA	2.174.467	2.858.942	31,5	1.422.333	1.599.752	12,5
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.111.423	1.247.959	12,3	1.254.880	1.501.720	19,7
URTEKO METATUA	3.047.267	3.407.314	11,8	3.621.666	4.153.270	14,7
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	808.756	1.083.680	34,0	504.993	476.635	-5,6
URTEKO METATUA	2.169.616	2.690.035	24,0	1.368.748	1.374.659	0,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoek honako hazkuntza hauek izan dituzte esportazioetan: % 40,3koa Araban, % 12,3koa Bizkaian eta % 34,0koa Gipuzkoan. Arabako esportazio ez-energetikoek % 40,1 egin dute gora; Bizkaikoek, % 33,3, eta Gipuzkoakoek, % 33,9. Esportazio energetikoek, Bizkaiaren kasuan, % 48,9 egin dute behera.

Hilabete honetan, Arabatik igorritako ondasunen erdia baino gehiago honako honetan kontzentratu dira: “*Garraio-materiala*” (guztizkoaren % 54,9), % 61,8ko igoerarekin (538 milioi esportatu). Beste muga-zergen partida nabarmen batzuk: “*Plastikoak eta kautxua*” (% 41,1eko igoera) eta “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 44,1). “*Metalak eta haren enfabrikaturak*” partidak % 1,4 egin du atzera, baina bigarren posizioa mantendu dute lurralde horretan, 188 milioi euro esportarekin.

Gipuzkoan gora egin dute “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” partidaren salmentek (% 35,2), “*Garraio-materialaren*” salmentek bezala (% 83,4). Era berean, beste hilabete batez, hazkuntza handia izan da “*Landareen erreinuko ekoizketan*”; muga-zergen sekzio hori 33,8 milioi eurora iritsi da hil honetan, % 476,1eko urte arteko hazkuntzarekin.

Bizkaian, hilabete honetako esanguratsuen “*Produktu mineralak eta energetikoak*” partidaren esportazioen jaitsiera da (–% 48,2), aurreko urteko hil berean baino 138,5 milioi gutxiago. Hazi egin dira, berriz, honako hauen salmentak: “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 40,0), “*Garraio-materiala*” (% 43,0), “*Plastikoak eta kautxua*” (% 20,1), “*Produktu kimikoak*” (% 144,7) eta “*Koipe eta olioak*” (% 74,8).

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko martxo

2023ko martxoan, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Italia) eratu dute Euskal AEn bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 52,5 hartzen dute (1.739 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 58,5 dagokio.

Alemaniarra eginiko **esportazioek** gora egin dute, eta 507 milioi eurokoak izan dira; haietan nagusitzen dira “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (111,9 milioi), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (80,7 milioi) eta “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (51,8 milioi), 424 produkturen kasuan.

Frantziara eginikoak 656 produktu-tipotara zuzentzen dira eta, guztira, 460 milioi euro dakarte; haien artean nabarmentzekoak “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (35,8 milioi), “*Kautxu berriko pneumatikoak*” (28,5 milioi) eta “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (15,6 milioi).

Estatu Batuak hirugarren posizioan daude, 344 milioirekin, eta esportazioak honako hauetan kontzentratzen dira: “*Petrolioaren olio finduak*” (79,8 milioi), “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (43,2 milioi) eta “*Biodiesela eta haren nahasteak*” (34,5 milioi) eta 344 produktu desberdin.

Erresuma Batuei Euskal AEko esportazioen guztizkoaren 237 milioi dagozkie; kopuru horretatik, 19,8 “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” dira, 16,0 milioi “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*” eta 12,4 milioi “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*”, eta 428 muga-zergen partida.

Italiara egiten den esportazioaren balioa 190 milioi eurokoa da, eta hilabete horretan eginiko transakzioetan honako hauek nagusitzen dira: “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (14,4 milioi), “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (14,3 milioi) eta “*Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak*” (8,5 milioi)

Errusiara eginiko esportazio kopurua % 31,3 hazi da, 9,8 milioitik 12,9 milioira. Honako hauei dagozkie, funtsean: *“Metala lantzeko mekanizazio-zentroak”* (8 milioi euro) eta *“Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak”* (2,4 milioi).

Gure **inportazioen** % 53 EB27tik etorri dira, hilabete honetan. Herrialde esanguratsuenen artean, Alemaniatik inportatutakoa nabarmentzen da (382 milioi). Funtsean, honako hauei dagokie: *“Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak”* (43,5 milioi) eta *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (42,9 milioi). Era berean, Frantzia nabarmentzen da (217 milioi) eta, kasu honetan, *“Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra”* produktua dago lehen posizioan (33,6 milioi), 725 produktuekin; horrek erakusten du herrialde horretatik inportatzen diren ondasunetan dagoen heterogeneotasun handia. Txina hirugarren postuan dago (156 milioi); haietatik, 25,4 *“Metagailu elektrikoak”* eta 16,4 milioi *“Biodiesela eta haren nahasteak”* dira. Brasil, 149 milioirekin, hilabete honetan, inportazio-foku garrantzitsua da, batik bat *“Petrolioaren olio finduena”* (74,4 milioi) eta *“Soja-babak, baita hautsiak ere”* produktuarena (63,5 milioi). Estatu Batuetatik, 148,5 milioi esportatu dira, eta, haietatik, bi heren *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarbu gaseosoak”* izan dira (92,7 milioi).

Errusiaren kasuan, % 24,1eko atzerapena izan da; 2022ko martxoan 12,3 milioi izan ziren eta 2023ko hil berean, 9,4 milioi, eta bat ere ez da izan *“energetikoa”*.

Inportazio energetikoak, hil honetan, honela banatu dira: 290 milioi Amerikakoak (% 45) eta, haietatik, 93 milioi Estatu Batuetakoak, 74 milioi Brasilekoak, 62 milioi Mexikokoak eta 61 milioi Kanadakoak; 233 milioi Europakoak (% 36) eta, haietatik, 103 milioi Norvegiakoak, 55 Herbeheretakoak, 47 Erresuma Batukoak eta 26 milioi Italiakoak; 124 milioi Asiakoak (% 19) eta, haietatik, 53 Saudi Arabiakoak, 46 Indiakoak eta 24 Irakekoak, eta, azkenik, Afrikatik ez da ezer inportatu.

Merkaturatutako produktuak, 2023ko martxoa

Xehetasunak ikusteko, 2023ko martxoan ikusten da hamar **muga-zergen partida** nagusiek esportazioen % 40,5 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.341,8 milioi eurokoa izan da.

Talde horren barruan, nabarmendu egiten dira, besteak beste, honako hauek: *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (% 59,8ko urte arteko tasa eta 275,5 milioi esportatu, aurreko urteko hilabete berean baino 103 milioi gehiago), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (% 118,0 eta 193,4 milioi) eta *“Itsas produktuak tratatzeko arrantza-ontziak eta faktoria-ontziak”* (72,8 milioi esportatu, funtsean Gipuzkoatik Groenlandiara eta Bahametara, 65 eta 8 milioi). Espektroa esportazio-rankingeko lehen 25 posizioetara zabaltzen badugu, hazkuntza-tasa handiak ikusten ditugu honako partida hauetan: *“Soja-olioa”* (24,9 milioi), *“Biodiesela eta haren nahasteak”* (34,5 milioi), *“Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.”* (26,2 milioi) eta *“Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak”* (54,9 milioi). Bestalde, aipatu behar da *“Petrolioaren olio finduen”* salmentetan izan den jaitsiera nabarmena (–% 48,8).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.619.266	3.312.340	100,0	26,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	172.460	275.525	8,3	59,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	189.975	225.922	6,8	18,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	88.690	193.361	5,8	118,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	110.016	140.974	4,3	28,1
Petrolioaren olio finduak	265.427	135.832	4,1	-48,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	80.688	98.254	3,0	21,8
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	76.369	87.334	2,6	14,4
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	0	72.812	2,2	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	60.852	56.963	1,7	-6,4
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	28.167	54.854	1,7	94,7
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	37.606	41.628	1,3	10,7
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	39.647	40.690	1,2	2,6
Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	34.522	37.664	1,1	9,1
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	30.805	37.292	1,1	21,1
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	20.867	37.187	1,1	78,2
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	2.560	34.513	1,0	1.248,4
Xaflen bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	25.168	31.908	1,0	26,8
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsiatutako	28.985	30.839	0,9	6,4
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatu batzuk	18.945	28.351	0,9	49,7
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	21.089	27.322	0,8	29,6
Arrain izoztua xerratu gabe	14.400	26.598	0,8	84,7
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	5.655	26.203	0,8	363,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	34.105	25.683	0,8	-24,7
Soja-olioa	425	24.899	0,8	5.756,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaetarako euskarriak	18.885	24.898	0,8	31,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, muga-zergen partidetan, garrantzitsuenak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” (guztizkoaren % 14,5) partidak, % 17,9ko jaitsiera izan du, 2022ko hil berean baino 81,1 milioi gutxiago, 371,9 milioiko guztizko erosketetan. Nabarmen hazi dira, ordea, honako hauek: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 1.155,8; haietatik, 181 milioi inportatu dira, funtsean gasolioa eta fuel pixka bat); “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” (% 157,9 eta 92,8 milioi), “*Metagailu elektrikoak eta haien zatiak*” (% 154,2), “*Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)*” (% 109,9) eta “*Enbolodun (pisto) motor alternatiboak eta motor birakariak, txinparta (eztanda) bidez piztekoak*” (% 102,7).

ARABA. Esportazioak 2023ko martxoan

Arabaren esportazioak % 40,3 hazi dira, hilabete honetan honako hauetan izan den igoera handiaren ondorioz: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 59,8 eta 273,2 milioi esportatu), “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” (% 118,5 eta 193 milioi) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (% 57,6 eta 56,3 milioi esportatu).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoan 2023



	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	699.087	980.701	100,0	40,3
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	170.969	273.206	27,9	59,8
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	88.344	192.993	19,7	118,5
Hodidak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	67.363	73.757	7,5	9,5
Kautxuzko pneumatiko berriak	35.696	56.263	5,7	57,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	57.274	43.438	4,4	-24,2
Ardoa, mahats freskoarena	14.935	20.212	2,1	35,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	23.500	16.567	1,7	-29,5
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	6.104	11.860	1,2	94,3
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	12.083	11.676	1,2	-3,4
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	9.477	9.033	0,9	-4,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko martxoan

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 12,3 egin dute gora. “Petrolioaren olio finduak” partida dago esportazio-rankingaren lehen postuan Bizkaian, 131,8 milioi euro esportaturekin, nahiz eta jaitsiera handia izan duen (–% 50,1), aurreko urteko hilabete beraren aldean. Gainerako muga-zergeren partida nagusietan tasak positiboak izan dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: “Soja-olioa” (24,9 milioi esportatu), “Biodiesela eta haren nahasteak” (34,5 milioi), “Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak” (52,5 milioi) eta “Arrain izoztua xerratu gabe” (25,3 milioi).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2023



	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.111.423	1.247.959	100,0	12,3
Petrolioaren olio finduak	263.859	131.791	10,6	-50,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	70.166	97.136	7,8	38,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	73.784	84.163	6,7	14,1
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	26.334	52.560	4,2	99,6
Erabilerara tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	34.521	37.664	3,0	9,1
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	31.479	35.991	2,9	14,3
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	2.560	34.513	2,8	1.248,4
Transformadore elektrikoak, bihurtzailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	19.215	32.965	2,6	71,6
Arrain izoztua xerratu gabe	13.490	25.297	2,0	87,5
Soja-olioa	425	24.899	2,0	5.756,7

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko martxoan

Gipuzkoako esportazioek % 34,0 egin dute gora, eta, haien partida nagusien artean, honako hauen igoera nabarmentzen da: “*Itsas produktuak tratatzeko arrantza-ontziak eta faktoria-ontziak*” (65 milioi esportatu), “*Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.*” (% 402,5 gehiago), “*Ontziak eta paketatze aparatuek garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatze makinak*” (% 81,8) eta “*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*” (% 20,5).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Martxoa 2023



	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	808.756	1.083.680	100,0	34,0
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	78.067	92.888	8,6	19,0
Automobilentzako zati eta osagarriak	62.535	85.347	7,9	36,5
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	0	64.959	6,0	-
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	42.677	37.724	3,5	-11,6
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	28.985	30.839	2,8	6,4
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	12.572	22.856	2,1	81,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	4.444	22.452	2,1	405,2
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	21.752	21.232	2,0	-2,4
Metal aruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	19.673	20.536	1,9	4,4
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.652	20.062	1,9	20,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Urteko lehen hiruhilekoan esportazioak % 21,2 gehitu dira, inportazioak % 11,1 eta superabita 1.800 milioi eurotik gorakoa izan da

2023ko lehen hiru hiletan, Euskal AEko **esportazioek** % 21,2ko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 1.564,9 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 8.956,3 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 3.407 milioikoa (guztizkoaren % 38), gero Arabak (2.859 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (2.690 milioi).

Arabako esportazioek urte arteko hazkuntza handiena izan dute (% 31,5), 2022an baino 684,5 milioi gehiago. Gipuzkoan, hazkuntza % 24,0koa izan da (520,4 milioi gehiago) eta, Bizkaian, % 11,8koa (360,0 milioi gehiago).

Esportatutako produktu-mota kontuan hartuta, gainbehera izan da “Produktu energetikoen” esportazioetan (–% 13,2), aurreko urteko hiruhileko berean baino 76,8 milioi gutxiagorekin. “Produktu ez-energetikoen”, berriz, gora egin dute % 24,1, 2022ko aldi bereko metatua baino 1.641,8 milioi handiagoa.

Gehien saldu diren hamar produktuek (muga-zergen partidak) guztizkoaren % 41,3 kontzentratzen dute, 3.703 milioiko zenbatekoarekin.

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”, aldi horretan, Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (850,9 milioi esportatu eta % 51,6ko urte arteko hazkuntza-tasa).

Esportazio-ahalegina kontuan hartuta gehien nabarmentzen diren produktuak, aipatutakoaz gainera, “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 50,9 eta 219,7 milioi) eta “Biodiesela eta haren nahasteak” (% 375,3 eta 91,3 milioi esportatu) dira.

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” eta “Kautxuzko pneumatiko berriak”; % 45,7ko eta % 25,5eko aldakuntza positiboak izan dituzte, hurrenez hurren. Hiruhileko honetan, “Itsas produktuak tratatzeko arrantza-ontziak eta faktoria-ontziak” partidak garrantzi handia hartu du; izan ere, 72,8 milioi esportatura iritsi da. Era berean, “Petrolioaren olio finduen” salmentetan izan den jaitsiera esanguratsua ere aipatu behar da (–% 15,2).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Martxoa 2023



Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



Kodea	Izendapena	Mila eur
ESPORTAZIOAK GUZTIRA		8.956,29
1 8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	850.884
2 8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	617.287
3 8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	571.974
4 2710	Petrolioaren olio finduak	452.556
5 4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	403.121
6 7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	219.674
7 7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	188.052
8 8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	146.395
9 9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	130.278
10 1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	122.755
11 7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	119.730
12 7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	114.126
13 7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	109.535
14 8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatueta	92.915
15 3826	Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	91.280
16 8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	89.418
17 7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	78.846
18 7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	78.302
19 7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	76.097
20 0303	Arrain izoztua xerratu gabe	74.160
21 8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	73.937
22 8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	73.432
23 8902	Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	72.843
24 8483	Transmisio-ardatzak, kojineak, engranajeak, enbrageak, etab.	64.065
25 8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	63.438

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Maiatzaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Alemania izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (1.406 milioi) eta, ondoren, gertutik, Frantzia (1.372 milioi) eta, urrunago, Estatu Batuak (757 milioi), Erresuma Batuak (597 milioi) eta Italia (513 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 52 hartzen da.

Herrialde horiei dagokienez, estaldura-tasak honako hauek dira: Alemaniaren kasuan, % 135,1ekoa; Frantziaren, % 226,8; Estatu Batuen kasuan, % 163,5, Erresuma Batuen kasuan,

% 351,7 eta Italiaren kasuan, % 145,8. Hiruhileko honetan, estaldura-tasak % 125etik gorakoak dira, gure bezero diren 10 herrialde nagusiei dagokienez.


Euskal AErako **inportazioen** metatua 7.128 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 715 milioi altuagoa dela ikusten dugu. % 11,1eko igoera hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (4.153,3 milioiko balioa duten inportazioak ditu) aldi horretarako % 14,7ko igoera egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 531,6 milioi gehiago. Araban ere inportazioek gora egin dute, % 12,5, 177,4 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, igoera oso txikia izan da, % 0,4koa eta 5,9 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 1.599,8 eta 1.374,7 milioi euro izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioa aurreko urteko aldi berekoa baino % 18,6 handiagoa izan da, eta “Produktu ez-energetikoen”, % 9,0 handiagoa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2023ko lehen hiru hiletan, 1.828,6 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, zeina % 125,7koa baita.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

[Kanpo-merkataritzako datuak kontsultatzeko aplikazioa. Euskadi](#)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62